

OSATEK, S.A.-KO ZUZENDARI GERENTEAREN XEDAPENA, OSATEK-EN ADMINISTRARI KATEGORIAN, LAN-KONTRATUKO LANGILE FINKO IZATEKO MEREZIMENDU-LEHIAKETA BIDEZ HAUTATZE-PROZESUKO EPAIMAHAIA ALDATZEKO.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 13an emandako xedapen baten bidez, onartu egin zen lanpostuak lanbide-kategorien arabera banatzea, eta arautu egin ziren lan-kontratudun langile finko izateko hautaketa-prozesuaren oinarri orokorrak, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko deialdi baten bidez.

OSATEKeko zuzendari gerenteak 2022ko abenduaren 14an emandako xedapenaren bidez, onartzen dira OSATEKen destinoa duten administrarien kategoriako lan-kontratu finkoko langileak merezimendu-lehiaketa bidez eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

OSATEKeko zuzendari gerentearen 2023ko martxoaren 2ko xedapen bidez, hautaketa-prozesuko epaimahaia izendatu zen, OSATEKen administrari kategorian, lan-kontratuko langile finko izateko merezimendu-lehiaketa bidez.

Horregatik, ematen zaizkidan ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Bat.- Xedapen honen xedea da OSATEKen administrari kategorian, lan-kontratuko langile finko izateko merezimendu-lehiaketaren bidez hautatze-prozesuko epaimahaiaren osaera aldatzea, Xabier Mancisidor de la Fuentek presidentea uko egin ondoren.

Bi.- Epaimahaia

Honako pertsona hauek osatuko dute epaimahaia:

Presidentea: Jorge Abeledo Fernández.

Bokalak: Gabino Machón González.
Amagoia Muxika Mendiolea.
Yolanda Ramos Herrera.

Idazkaria: Begoña Fernández Ruanova.

Hiru.- Gauzatzea.

Sinatzen den egunean jarriko da indarrean xedapen hau. Jakinaraz bekie interesdunei.

Lau.- Argitalpena

Xedapen hau OSATEKenen webgunean (<https://www.osakidetza.euskadi.eus/osatek-zerbitzuak/-/2022ko-enplegu-eskaintza/>) eta Campo&Ochandiano enpresaren webgunean (www.campo-ochandiano.com) argitaratuko da.